



“Informazioa egiteko diru asko behar da”

Odile Kruzeta | Euskadi Irratiko zuzendaria

Folk-progresibo kantaria izan zen garaian –Izukaitz– fisika ikasi zuen Odile Kruzeta neska lirain hark, baina Euskadi Irratia zuzentzen du aspaldion emakume lirain honek. Odile Kruzeta: uztargarri zaizkio Eibar sorterrria eta bukolismoa.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Dani Blanco

14 urterekin zertaz idazten zenuen Zeruko ARGIA?

Eibarko kronika egiten nuen; baina nahiko era poetikoan...

Poesia zure izena da, Odile...

Izen baten poesia bakoitzaren entzumenean dago. Edo esatariaren ezpainetan, agian?

Zutaz galdetu dut irratian: goxoa bezain hotza, beltzez janzten du, autorik ez, fisika ikasi zuen... Zure formula enigma bat dugu!

Eta zeinena ez? Nor gara, nondik gatoz, nora goaz? Joxe Migel Barandiarani entzun nizkion galdera horiek eta ezin ditut burutik kendu.

Izukaitz formula: izutzen ez den ahots ezia duzu...

Ez dakit, ausardia ez da nire bertute nagusia.

Zein da?

Hutsa behar dut irribarra dantzan jartzeko.

Zure moduko emakume kantariez mintza gaitzen: Maddi Oihenart ala Maddi Pryor?

Biak oso gustuko ditut eta haiez gain Jacqui McShee, Amaia Zubiria, Joni Mitchell, Chrissie Hynde, Sade, Niña Pastori, Anari, Dido, Suzanne Vega, Mercedes Sosa, Ella Fitzgerald...

Euskadi Irratian informatiboetako burua izan zinen: ondo agindu al zenuen ala ondo betearazi al zenuen agindutakoa?

Beti dago zer hobeturik; baina informatibo-buru gisa egin-dako lanarekin ez daukat zorrik kontzientzian.

Zer da eibartarra izatea?

Irekia eta zabala izatea. Irekia, pentsaera eta jarreretan. Zabala, kanpokoei eta ikuspegi diferenteei harrera egiteko orduan.

Bai noski, programazioan tarte handia eskainita musikari. Informazioa egiteko diru asko beharko litzateke, oso garestia baita.

Euskaltzain urgazle zaitugu iaztik: asko “urgatu” al duzu?

Ezer gutxi.

Adi orain: “ehuneko bostek” behar luke baina “ehuneko bostak” diote, behin eta berriro, zure esatari zenbaitek. Telebistan aspaldian indarrean diren irizpideak zergatik ez dira irratiara ailegatu?

Irizpideak xuxen jarraitzen dituzten irrati kazetariak ez dira albiste. Hizkuntzaren normalizaziorako daukagun erantzukizuna kontuan hartuta ordea, zero-akatsa joko beharra dago.

Opus-eko Nafarroako Unibertsitatean bota zenuen: gure bekadunak hemendik ateratzen dira...

Nafarroako unibertsitatean ikasitakoek taldetxo osatzen dute gaur egun. Deustutik datozenek bezalaxe. Baina multzo nagusia EHUn ikasitakoena da. Baita berrien artean ere. Bestalde, otsaila geroztik Mondragon Unibertsitateko 2 bekadun ditugu.

Zure kazetari profesional batzuei egun bakarreko kontratua egiten zaie orain: prekarietatea ailegatu al da irrati publikora ere?

Ohiko kazetariak eguna libre hartu beharra daukatenean –medikua dela, notarioa, bilera sindikala, etxe aldaketa eta abar– ordezko bat ekartzen dugu lantaldea indartzera. Ez beti baina bai sarri.

Aizu, Euskadi Irratia ez ezik Euskadi Gaztea ere zure lurraldea omen da, berandu enteratu naizenez...

Agian lurraldea esan barik itsasoa esan beharko genuke Miramondik emititzen diren EITBko hiru irratiaren kudeaketa-pilotu naizen neurrian. Dena den, E-gaztearen benetako dinamizatzailea Edurne Ormazabal da. ■